

BERRIGARA

zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1996, martxoak 29

Erramu Zapatuko Feria



Txakur nordikoak lehian

Autoberezi

ANTIGUA AUZOA
ANTZUOLA



1996ko Urteko kotxeak

FIAT Alfa Romeo



ALTZARIAK • DEKORAZIOA

UGARTE

AROSZTEGIA

San Juan auzoa (Barruti) Telefonoa eta Faxa: 76 54 91



Leiho
termoakustikoak
Horma armairuak
Ateak
Altzariak



GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiarene unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalez osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak:
**CRISTOBAL
ESTOMBA
GOMEZ
MURGIONDO
OTALORA
RUIZ**



Zerkaosteta, 17 etxabea ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18

BERRIGARA

PROTALDE JAUREGIA
1570 Bergara
76 03 97 • Faxa: 76 08 19

gitaratzailea:

RDUN Elkartea.
Isterreka, 13 Bergara.
76 08 19

zendaria:

eko Azkarate

redakzioa:

uardo Mendibil
el Elkorobereziar
ne Larrañaga

aketazioa:

eko Azkarate

ibilizitatea:

ix Azkarate

rpidetzak:

rka Elortza

stuen zuzenketak:

epan Plazaola

ripi Laskurain

x Labaien

redakzio kontsellua:

rka Elortza

guel Angel Elkorobereziar

x Labaien

mikiak:

or Rodriguez

rka Ortega & Jon Alvarez

x Ugalde

ri Azkarate

naketa:

ntxangorri taldea

ada:

00 ale.

rimategia:

tu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

pyright:

BERRIGARA

ge gordailua:

50/91

IN:

10-6599

BERRIGARAK ez du bere gain

izen aldizkarian adierazitako

men eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako
aldaren laguntza jaso du



Aldizkari honek
puzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko
Jauriaritzaren Kultura
Sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?


GERMAN MURUAMENDIARAZ Elikadura Politikako zuzendaria

- Nola baloratzen
duzu Britainia Haun-
dian haragiarekin ger-
tatutakoa?

- Askotan gauzak ger-
tatzen diren momentuan
ez dira azaltzen, interes
batzuk daudelako: kom-
ertzialak, politikoak...
Kontua da, neurri ezber-
dinean, gai honekin de-
nok kaltetuak garela.

- Zer gertatuko da?

- Kontsumoa jeitsi e-
gingo da, dudarik ez.
Gainera holako eskan-
dalo bat gertatzen dene-
an jendea beste haragi
mota batzuk jaten hasten
da: txerriarena, oilaskoa-
rena, hor dago arraina
ere bai... Gero apurka
apurka lasaitasuna etor-
tzen bada atzera berriz
ere jendea haragia jaten
hasiko da. Horri, gainera,
azken urteetan jateko



ohiturak aldatzen ari
direla lotu behar zaio:
jendeak kantitate gutxia-
go jaten du eta kalitateari
ematen dio lehentasuna.

- Kanpainarik egin
behar duzue jendearen
beldurra gainditzeko?

- Ostegunean Madri-
len aurkeztu zen kanpai-
na eta gonbidatuta gau-
de. Hala ere hemen ino-
lako arriskurik ez dago-
ela esan nahi dut.

**"Britainia Haundiko okelaren kontuarekin
denok izango gara kaltetuak"**

I T U R R I O N E T I K

"El rey león" filmeko musikarekin kontzertua Pazkuetan Frontoian

Bere X. urtemuga ospatzeko, Orkestra Sinfonikoa "El
rey león" filmeko musika lantzen ari da jaietarako.
Kontzertua maiatzaren 24an izango da Frontoian eta,
Orkestaz gain, Orfeoia eta Aritzeta abesbatzek eta
Fran Iturbe, Koldo Lizarralde, Aitor Aranburu, Julen
Narbaiza eta Enrike Txurruka musikariek osatutako
rock taldeak hartuko dute parte. Era berean, besteak
beste, Amaia Arriaran, Gotzon Bikuña eta Rafa Moñux
bergararrek bakarlari modura abestuko dute.

Kontzertuak bi zati izango ditu: Orkestaren lan
aipagarrienen ondoren, "El rey león" filmeko musika
(Hans Zimmer eta Elton Johnena) eskeiniko da.

E S A N
D U T E

"Gure merkatua ez
dago zuzenean
erraminta
makinarekin lotuta
baina aurreikusi
dugunaren arabera,
bezero askoren
bisitak jasoko
ditugu. 1995erako
geneuzkan asmoak
bete egin dira.
1996ari begira ere,
gure egoera hobetu
gingo delakoan
gaude. Guk,
olatuaren gailurrean
gaudela esan
dezakegu. Gure lana
bi arlotan banatzen
da. Alde batetik,
software sistemak
ditugu, Cad-Cam-
erako, batez ere
enpresa metalme-
kanikoentzat.
Horrez gain,
terminal batzuk
sortzen ditugu
makinen
funtzionamendu eta
kalitateari buruzko
informazioa
jasotzeko"

SABIN
AZKARATE

Goitek System-eko
gerentea
ELGOIBARREN

"Euskal Herriko
ganadua orain dela
10 urteko prezioetan
saltzen ari da"

BALENTIN
GABILONDO

EHNEko
Gipuzkoako
Presidentea
ETB



BABE, EL CERDITO VALIENTE

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.

Astelehena: 19.30 (Ikus. Eguna)



ALERTA NUCLEAR

Aste Santu osoan.



HISTORIAS DE FILADELFIA

Apirilak 12: 20.00 (Forum

Cinematographe).

Zinea

▼▼ Aurtengo Oscarretan hainbat izendapen izan ditu filme australiar honek. **Chris Noonan**ek zuzendutako komedia honetan, txerrikume baten gorabeherak kontatzen zaizkigu. *Hogget* jaunak (**James Cromwell** aktorea) konfiantza osoa dauka txerrikumearengan eta biek nahi duten guztia lor dezaketela frogatuko dute. Horrez gain animaliek zer pentsatzen duten jakiteko aukera izango dugu.

▼▼ **John Travolta** eta **Christian Slater** aktore ezagunek protagonizatutako filme futurista hau ikusi ahal izango da Novedades aretoan apirilaren 4tik 9ra bitartean, ohizko ordutegian.

John Woo zuzendariaren (*Blanco humano*) filme honek efektu berezi aipagarriak ditu eta datorren astean bertan estreinatuko da Estatu osoan.

▼▼ **George Cukor** zuzendari ospetsuak 1940an errodatutako komedia hau hamarkada horretako onenetakoa dugu. Filmearen arrakastan zerikusi handia izan zuen errepartoak, **Cary Grant**, **Katherine Hepburn** eta **James Stewart**ekin gozatzeko aukera baitugu. **Philip Barry**ren antzerki lanean oinarritutako filmea.

Deiak

▼ **1964**an jaiotakoen bazkaria apirilaren 27an. Informazioa Plazako kioskoan (Jose Antonio Luque) eta 76 29 99/47 57 (Peli Narbaiza) telefonoetan.

▼ **Odol ateraldia.** Apirilaren 10ean 18.30etan Seminarioan.

▼ **Gestoren** manifestazioa bihar larunbata Gasteizen. Autobusa irtengo da Frontoitik 15.30etan.

▼ **Rosario Jiménez**en margoak Azpeitiko Kilikolor dendan.

▼ **Benito Cantero**ren argazki erakusketa Eibarko Kultu tabernan.

Ogia

▼ **Igandea 24:** Mizpildi.

▼ **Apirilak 4:** Ogizun.

▼ **Apirilak 5:** Konde.

▼ **Apirilak 7:** Bolintxo.

▼ **Apirilak 8:** Ogizun.

FARMAZIAK

▼ **Ostirala 29:** Camacho/Irizar.

▼ **Larunbata 30:** Puy/Amezua.

▼ **Igandea 31:** Puy/Ruiz.

▼ **Astelehena 1:** Guallar.

▼ **Asteartea 2:** Estella.

▼ **Asteazkena 3:** Mozos.

▼ **Osteguna 4:** Camacho.

Amets



• **HERGO** eta **HOBBY** karabanak eta **RIVIERA** autokarabanak

- Zango erremolkeak
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak

Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50

AMETS TAILERRAK
Berezano auzoa OÑATI

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA

☎ 79 91 82 ARRASATE

Erramu Zapatua

Inguruko ganadu, zaldi, behor eta ardiak erakutsiko dira

Ohikoa den bezala, Aste Santuaren atarian, Erramu Zapatuko feria izango da Bergaran. Feria bihar larunbata goizeko 9 t'erdietan zabalduko da Ibargarai kalean eta Seminarioan eta bertara hurbiltzen direnek abelburuak, baserriko produktuak eta nekazal makineria ikusteko aukera izango dute. Aurreko edizioetan bezala, ganadua artean behiak, txahalak, ardiak, zaldiak, behorak etab. izango dira eta salduko diren baserriko produktuez gain, jendeak ohiko taloak, gazta eta beste hainbat produktu dastatu ahal izango ditu Erramu Zapatuko ferian.

Bestalde, Jarduneko Gazte Taldeak antolatutako txorimalo lehiaketa ere izango da larunbatean Ibargarai kalean. Aurten 30 partaide inguru izango dira, gehienak 14 urtetik azpikoentzako kategorian. Partaideek beren irudimena azaldu beharko dute txorimaloak apain-



Abereez gain, makineria edota talo eta txorizoa ere izango dira feria lekuan.

tzerakoan sariren bat eskuratu ahal izateko. Ondoren, 13.30etan, Azpillaga eta Agirre bertsolarien saioa izango da Aranzadi Ikastolako patioan eta arratsaldean, 17.30etan, herri kiroleko probak jokatuko dira. Jarraian umeentzako jolasak iragarri dira Plazan eta gauez bertsolari jaialdia Udal

Pelotalekuan. Gaueko 10.15etatik aurrera Eguzkitze, Lizaso, Iturriaga, Mendiluze, Gorrotxategi eta Irazu arituko dira bertsotan eta gai-jartzailea, berriz, Lazaro Azkune izango da.

Trafiko aldaketak zapatuan

Udaltzaingoak jakitera eman duenez, bihar larunbata, Erramu Zapatuko feria dela eta, herriko hainbat lekutan trafiko aldaketak izango dira. Horrela, Ibargarai kalea Mi-

guel Altuna Institutuaren aurreko bidegurutzean moztuko da, Seminarioko patioaren sarreraraino doan tarte horretan ganadua jarriko baita. Trafikoa, beraz, Zurradero kaletik bideratuko da. Euskal Herriko Adiskideak kalea ere Telefonicako aldapan moztuko da, bertan eskulanak erakutsiko baitira. Udaltzaingoak, egun horretan ferian ibiliko den jendetza kontutan izanik, ko-txea ahal den neurrian ez erabiltzea eta beharrezkoa izanez gero bariantetik ibiltzea eskatzen du.

Jardunek antolatutako txorimalo lehiaketako sari banaketa 12 t'erdietan izango da

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62

IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia
Bioter produktoak eta haziak**

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

Euskal Herriak, askatasuna

Datorren apirilaren 7an Aberri Eguna ospatuko du Ezker Abertzaleak Hendaia-Irun ibilbidea egingo duen manifestaldi baten bidez.

Aberri Eguna euskal nazio eraikuntzaren alorrean egun erreferentziala dugu abertzaleontzat, gure eraikuntza nazionalaren ikur ahaztezina.

Euskal Herriak baditu, gainontzeko herrialdeengandik bereizten duten hainbat ikur eta ezaugarri.

Euskarak herri erdaldunengandik bereizten gaitu, ikurriña dugu gure aberriaren zeinu.

Egunero bezala, Aberri Eguna bezalako egun errebindikatiboan euskaldun abertzale guztion eginkizuna da gu ez garelako ez espagnolak ez frantsesak aldarrikatzea, gure euskalduntasuna errebindikatzea eta Euskal Herriak aske izateko daukan eskubidea defendatzea.

Modu ezberdin askotan gauza daiteke eskaera eta errebindikazio hau eta guk batzuen artean (mobilizazioetan parte hartu...) honoko hau proposatzen dizuegu: apirilaren 7an gure leiho eta balkoietan euskal ikurra dugun ikurriña zintzilikatzea egun osoz, gure izaera abertzalea aldarrikatzeko.

HERRI BATASUNA

Agorrosingo pista

Udaberria heldu da eta honekin batera eguraldi onaren aitzakiaz kirola aire librean egiteko nahia areagotzen da. Bakoitzak kirola bere neurriaren arabera egiten du eta batzuk aintxintxika egitera joaten diren bitartean, beste batzuk pasiatzera edo mendi aldera joaten dira.

Kirol horiek egiteko aukera ugari dago Bergaran, gure inguruetan hainbat pasialeku edo mendi ibilaldi egiteko aukera baitago. Hori horrela izanik aintxintxika egiteko tokirik aproposenetarikoa Agorrosin futbol zelaiaren dagoen atletismoko pista da. Bertan herriko hainbat korrikalari ibiltzen dira eta ez bakarrik korrikalariak, pasiatzen ibiltzen direnak ere Agorrosingo pistara jotzen dute.

Lau kale daude eta askotan pasiatzen ibiltzen direnak lehenengo kaleak okupatzen dituzte, futbol zelaitik gertuenak alegia. Ondoriz, korrika egiten ari direnak lehen kaletik doaztenean pasiatzen ari direnak eskibatzen kale urrunera joan behar dute, horrek esfortzua areagotzen duelarik.

Horrekin batera erritmo aldaketa bat ere egin behar da eta aintxintxika zoazenean horrek asko molestatzen du.

Arazo hori konpontzeko, pasiatzen ari direnak kanpoko kaletik ibiltzea izango litzateke egokiena eta horrela korri-

kalariek ez dute esfortzu "extra" hori egin beharrik. Halaber, batzuetan, oso gutxitan egia esanda, pasiatzen ari direnak erretzen joaten dira eta zigarroaren edo puroaren keak korrika egiten ari denari traba egiten dio eta kontutan izan behar da gune hori kirola egiteko dela.

Beraz, guztiok arazorik gabe Agorrosingo pistekin gozatu ahal izateko komenigarria izango litzateke pasiatzen ari direnak kanpoko kaleetatik ibiltzea, eta ahal izanez gero, ez erretzea.

J. GALLASTEGI

Aste Santu osterarte

Aste Santuko oporrak direla eta datorren ostiralean ez da Berrigararik kaleratuko. Beraz, hurrengo alea apirilaren 12an jasoko duzu etxean. Bitartean, ondo pasa oporrak.

Tiira biraka



ALEX UGALDE

◆ **Larrain dantza**

Jardunek antolatuta, Larrain dantza ikastaroa emango du Xamatzek apirilaren 23tik ekainaren 25era astearteetan 19.30etatik 21.00etara. Bazkideek 2.000 eta gainontzekoek 2.500 pezeta ordaindu beharko dituzte. Izena emateko epea apirilaren 19an bukatuko da. Argibideak 76 08 19 telefonoan.

◆ **Begiraleak**

Udalekuetan begirale izateko interesa dutenek Xipizaro ludotekan eman dezakete izena apirilaren 15etik 27ra bitartean (76 23 76).

◆ **AEKko ikastaroa**

Bergarako Akulu AEK euskaltegiak Aste Santutik Pazkuetara bitartean Bergarako euskara ikastaroa antolatu du. Interesatuak 76 05 18 telefonora dei dezakete.

HILDAKOAK

- Jose Gorospe Pikasari**
Martxoak 22, 68 urte
- Santos Arietaleaniz Ziarsolo**
Martxoak 22, 65 urte
- Luis Belastegi Larrañaga**
Martxoak 23, 79 urte
- Asuncion Unamuno Goñi**
Martxoak 24, 79 urte
- Maria Larrañaga Zubizarreta**
Martxoak 27, 80 urte
- Dionisio Igarza Iñarra**
Martxoak 28, 83 urte

JAIOTAKOAK

- Unai Unamuno Ruiz**
Martxoak 16
- Kimberly Castro Pereira**
Martxoak 19
- Julen Corbillon Losada**
Martxoak 19
- Maider Agirrezabal Igarza**
Martxoak 22

Senideak eta HBkoekin eztabaida alkateak Plenoan

Asteleheneko Plenoan, erregu eta galderetara iritsi aurretik, HBk azkenaldian aurkeztutako hainbat mozio aztertzeko eskatu zuen baina EAJ, EA eta PSE-EEren kontrako botoek atzera bota zuten HBren proposamena. Jarraian Kristina Elkorok, Senideaken izenean, alkatearen jarrera salatu zuen beraiek aurkeztutako mozioa Plenora ez ekartzeagatik; *"orain hiru hilabete aurkeztu genizuen mozioa eta guretako gai urjentea da presoen kasuan ez direlako giza eskubideak betetzen"*. Alkateak Senideakekoen mozioa Plenora ekartzeko asmoa duela erantzun zuen.

Ondoren, erregu eta galderetan, HBk hainbat galdera planteatu zizkion alkateari. Maite Aristegik UNEDi buruz galdetu zuen, beraiek zituzten susmoak betetzen ari zirela esanez. *"Berregituraketa aurrera doa eta gu horren aurka garbi azaldu ginen. Patronatoko kidea*



Astelehenean 19.30etan atzeratutako mozioak aztertuko dira.

izanik, Udalak borren erantzunkizuna ere badauka. Berregituraketa aztertzeko prentsaurrea emango zenuela ere esan zenuen eta oraindik ere borren zain gaude". Alkateak UNEDeko kontuan interlokutore bakarra Patronatoak izendatutako gerentea dela erantzun zion. Aitor Aranzabalek, berriz, Erramu Zapatuko feriako programa ez dela Baserri eta Auzoen Bartzordean aztertu salatu zuen. Felipe Altuna EAJ-

ko zinegotziak Aranzabali esan zion horren ardura azken urteetan programa egiten ari direnei eman zaiela. Azkenik, Jesus Mari Garitanok azken egunotan Ertzaintzak enkaputxatuta egindako kontrolengatik galdetu zion alkateari. Gai horri buruz ezer ez zekiela adierazi zuen alkateak.

Astelehenean, hilak 1, 19.30etan Pleno bat izango da HB, Senideak, SOS Arrazakeria eta BOTaren mozioak aztertzeko.

Fatxadaren zati bat behera San Martinen



Jausitako harriek ez zuten azpian inor harrapatu.

Astelehen arratsaldean San Martin de Agirre ikastetxeko fatxadaren zati bat patioira jausi zen. Arratsaldeko ordubiak aldera gertatu zen erorketa eta zorionez ordu horretan ez zegoen ikaslerik patioan jolasten. Ikasle eta ikastetxeko langileen segurtasunerako erorketa gertatutako tokia hesiz inguratu da. Klaseak, berriz, normaltasun osoz ematen ari dira San Martin de Agirre ikastetxean.

◆ Aberri Eguna dela eta hainbat ekitaldi antolatu ditu HBk

"Euskal Herriak askatasuna" lemapean, Bergarako Herri Batasunak Epaitegian eta Ertzaintzaren komisaldegaren aurrean kontzentrazioak egin zituen asteazkenean. Atzo osteguna, berriz, Jose Luis Alvarez "Txillardegia" Telesforo Monzoni buruzko hitzaldi bat emateko zen Kultur Etxean. Gaur ostirala, gaueko 9 t'erdietan, afari herrikoia izango da Artatse elkartearen eta jarraian Patxi Sainzen kantaldia iragarri da. Igandean, eguerdiko 12.30etan, Andoni Tolosa "Morau" kantaldia eskeiniko du Pol-Pol tabernan eta arratsaldean Pedro Zumelaga preso politikoari ongi-etorria egingo zaio Plazan. Aurretik, 7etan, Amnistiaren Aldeko Komiteak antolatutako kotxe karabana egingo da Zabala tabernatik. Bestalde, astelehenean, "Euskal Herria Askatu" kontzentrazioa egingo da 8etatik aurrera Frontoian. Asteartean, apirilak 2, Iñaki Egañak Euskal Herriaren historiari buruzko hitzaldia emango du 19.30etan Kultur Etxean eta asteazkenean, ordu eta toki berean, Xabier Alegriak euskara

eta nazio eraikuntzaz hitzgingo du. Azkenik, igandean, hilak 7, Aberri Egunerako autobusa aterako da goizeko 9.30etan frontoitik.



Asteazkenean inauguratutako edifizio berriak 400 milioi pzt. inguruko kostua izan du.

Miguel Altuna Institutua inauguratu zuen Oliverik asteazkenean

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza jarriko da martxoan

Asteazkenean Miguel Altuna Institutu berria inauguratu zen Boni Laskurain kalean. Inaugurazio ekitaldian, besteak beste, Iñaxio Oliveri Hezkuntza sailburua, Eneko Oregi Hezkuntza sailburuordea, Mari Carmen Marin Diputazioko Hezkuntza ordezkaria, Victoriano Gallastegi eta Mikel Larrea Bergara eta Antzuolako alkateak eta Jose Mari Larrañaga institutuko zuzendaria izan ziren.

Xamatzeko dantzarien agurraren ondoren, Larrañagak hartu zuen hitza: "eskola hau Antzuola, Elgeta eta Bergarako ikasleei zuzendutako eskola publikoa izango da" adierazi zuen. Jarraian, Iñaxio Oliveriren txanda izan zen eta sailburuak Miguel Altunaren izena ekarri zuen

gogora: "ez nuke ahaztu nahiz Lanbide Heziketak Miguel Altunaren zor dion guztia eta inaugurazio hau berari eskeinitako omenaldia litzateke. Bestalde, gure hezkuntza sistema momentu oso inportantea dago eta lortzen dugun formazio mailak eragin zuzena izango du gure ongizatearengan". Ondoren, Oliverik inaugurazio zinta moztu zuen eta jarraian bertaratuek ikastetxe berria ezagutzeko bisitaldiak egin zuten.

Ekitaldiari amaiera emateko Musika Eskolako Metalezko Boskotek musika emanaldia eskeini zuten areto berrian. Aurretik, 15 ikasleek euren protesta azaldu zuten "Benetako euskal eskola publikoa orain" zioen pankarta bat erakutsiz

LONBIDE OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA

LARREA

TABERNA

Kalebarren, 17
ANTZUOLA

Gazte mugimendua bizitu nahian aurkeztu da Gazte Koordinadora

Asteazkenean Gazte Koordinadora aurkeztu zen Kultur Etxean. Gazte Koordinadora honetan, oraingoz, Bergarako Gazte Asanblada, Jarrai, Ikasle Abertzaleak, Txapa Irratia eta Presoen aldeko ikasleak bildu dira.

Kolektibo honen helburu nagusia "gazteen anestesia egoera apurtzea eta talde ezberdinen artean iniziatibak bultzatzea" da. Era berean, Gazte Koordinadorak Udalak hainbat talderekiko eta gazterekiko duen diskriminazioarekin apurtu nahi du. Beren hitzetan, "gazteen artean ikusten dugun konformismo eta pasibitatearekin apurtu nahi dugu, gure artean komunikazioa indartuz eta gazte mu-

gimendu bizia bultzatuz. Lokala, kontzertuak..., etab lortzeko abaleginak egin nahi ditugu".

Gazte Koordinadora ostiralero 7etan bilduko da Kultur Etxeko ganbaran eta dagoeneko koordinadoraren logotipo lehiaketa deitu du. Lanak herriko hainbat tabernatan laga ahal izango dira apirilaren 30era arte.



Alkatea, Ertzaintza eta herriko ikastetxeak kritikatu ditu Jarraik

Bergarako Jarraik Victoriano Gallastegi alkatea, Ertzaintza eta herriko ikastetxeen jarrera salatu zuen asteartean prentsurrean. Jarraiko kideen hitzetan, "alkatearen jarrerarekin gazteoi ateak ixten zaizkigu, rock kontzertuak antolatzerakoan adibidez". Jarraiko kideen ustez alkateak moral bikoitza dauka: "berak jasotako mehatxu telefonikoak sekulako oihartzuna izan du eta hainbat presok eta Mikel Zubimendik jasotako mehatxuen aurrean ez du ezer egin. Udaletxea Batzoki bihurtzen ari da eta alkateari jarrera errekapazita dezala esan nahi diogu".

Ertzaintzak aurreko astebukaeran egindako kontrolak salatu zituen Jarraik. "Ertzaintzari eskatu nahi diogu Bergaran ez dadila Estatu espainiarraren agente bihurtu, gazte mugimendua zapalduz". Herriko ikastetxeetan asanbladak egin edota kartelak jartzeko arazoak ditzutela esan zuten. Azkenik, Aste Santuan Zaldibin antolatu duen Gazte Topagunera joateko deia luzatu zuten. Apirilaren 4an, 10etan, autobusa irtengo da Beheko Estazioetik eta Zaldibiko ekitaldietarako bonoak 3.500 pezetan salduko dira ohiko tokietan.

◆ Pegatina lehiaketa

Jarduneko Gazte Taldeak Pazkuetarako pegatina lehiaketa antolatu du. Lanak herriko hainbat tabernetan laga ahal izango dira apirilaren 22ra arte. Irabazleak 10.000 pzta. jasoko ditu.

◆ Gaztetxoak

Jardunek 6., 7. eta 8. mailako ikasleentzat ekitaldiak antolatu ditu apirilaren 9tik 12ra bitartean, Gartzela Zaharrean. Gaztetxoei dei egiten zaie larunbatean, martxoak 30, 6 t'erdietan Gartzelan egingo den bileran parte hartzeko.

◆ Hiru haundiak

Aitzkorri, Gorbea eta Anbotora irteera antolatu du Jardunek apirilak 11, 12 eta 13rako. Izenematea apirilaren 6ra arte zabalik.

◆ Literatur lehiaketa

Udaleko Euskara Batzordeak XI. Literatur lehiaketa deitu du. Adinaren arabera 5 kategoria izango dira eta lanak entregatzeko epea apirilaren 26an bukatuko da. Argibideak Euskara Zerbitzuan, 77 91 66 telefonoan.

◆ EAJren Aberri Eguna

EAJk apirilaren 7an Donibane Lohitzunen ospatuko duen Aberri Egunerako autobus eta bazkari txartelak Batzokian salgai daude.

◆ Zezenzaleak

Zezenzaleak taldeak Mizpirualdekoekin bazkaria antolatu du iganderako, martxoak 31. Bazkalostean joan den urteko txekorketako kartela emango zaie Erresidentziakoei eta jarraian dantzaldia izango da.

ETXAGI

JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

Goierri

AUTOGIDARIEN ESKOLA

Fraiskozuri Plaza, 5 BERGARA ☎ 76 41 50

Imanol Alberdi

Bergarako Organoak bildumaren egilea

23 urte ditu eta Zuzenbide ikasketak egiten ari da Donostian. Musika Eskolan ibilia, Txilintxa abesbatzako zuzendari eta Old Boys Quintet jazz taldeko kidea da; bere pasioa organoak dira. Bergarako organoak izenburuko atalean, herriko elizetan dauden organoei buruz jardun zaigu zortzi astetan Berrigararen.

- Nolatan hasi zinen Bergarako organoei buruzko lanarekin?

- Nire asmoa herriko ondare aberats bat herriari ezagutzera ematea zen, jendea ohartu dadila organoak herriaren ondarearen zati bat direla. Sei organo daude Bergaran eta nik bi azpimarratuko nituzke. Alde batetik, San

Pedroko "Grand orgue", kalitate haundiko organo erromantiko frantsesa, organista guztiek nabarmentzen dutena; eta gauza bitxi bezala, Enseinantzako organoa, hiru teklaturuko organoa, saloikoa, berez elizan egoteko sortu ez zena. Antza denez, monja baten familiarteko batek Mariaren Lagundiari egindako donazio bat izan zen.

- Organogile frantsesen eta espainolen arteko tira-birak oso kuriosoak izan ziren joan zen mendean?

- Bai, Aquilino Amezua, esate baterako, obsesionatuta zegoen eta eredu frantsesetik aldentzeko organo eredu propioa sortzen ahalegindu zen. Mariaren Lagundiko organoa bere esperimentu bat

"Bergarako ondare aberats bat herriari ezagutzera ematen ahalegindu naiz"



Enseinantzako organoaren aurrean.

izan daiteke...

- Inguruko herrietan ba al dago horrelako organo aberastasunik?

- Toki gutxitan. Bergaran konbento eta eliza ugari daude eta garai batean herri oparo eta aberatsa izan zen. Organo gehienak garai berekoak dira, XIX eta XX. mende artekoak, Angiozarkoa eta Seminariokoa izan ezik, hauek beranduagokoa dira eta. Azpimarragarria da organo gehienak donazioak direla, San Pedrokoa edo Mariaren Lagundikoa, esate baterako. Eta bestalde, aipatu nahi nuke, Seminarioko organoa oso egoera kaskarrean dagoela eta zaintzen ez bada galdu egin daitekeela.

- Ze ezberdintasun dago pianoaren eta organoaren artean?

- Teknika ezberdinak dira. Organoa haizezko instrumentoa da eta beste era batera jo behar da. Ezberdintasun nagusia pedala da, hanketako teklatura, nota bajoentzat erabiltzen dena. Oso konplikatu da, partiturari begira, esku eta hankekin jo behar delako. Gainera, hankekin abilezia izateko aulkiaren puntan eseri behar denez, nekeza ez ezik, gogorra ere bada.

- Herrietako organista profesionalaren figura galdu egin al da?

- Bai, gaur egun afizionatuak dira gehienak. Gogo haundiz dabiltzanak baina formazio gabekoak. Bergaran suertea izan dugu Miguel González Bastidarekin, baina aurrerantzean parroketan organista fijoak izan nahi bada profesionala izan beharko da.

**INFERNUKUA
TABERNA**

Masterreka, 23 ☎ 76 18 49

Kizkur

**ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA**

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

Aisialdia

Bideo grabaketak

- Ezkontzak eta jaunartzeak grabatzen jende asko ibiltzen da. Zer esango zenieke kamara bat erosteko asmoa dutenei?

- Kamara gehienak automatikoak dira eta beraz, soinua, argia, etab. kamarak berak neurtzen ditu. Grabazio txikiak egiteko nahikoa izaten dira baina, normala denez, zenbat eta aukera gehiago izan hobeto. Kamara horiek 200.000 pezeta inguru balio dute eta diafragma, balantzea (kolorearena), soinua edota objetiboa gehituz gero garestiagoak dira.

Aukera izanez gero eta grabazioaren kalitatea hobetu ahal izateko komenigarria da mikrofonoa, foko txiki bat edota tripodea (kamara mugimenduak leundu eta irudia finkatzeko oso aproposa dena) ere erabiltzea. Dena den, oso garrantzitsua da gure helburuak zehaztea ekipoa aukeratu aurretik.

- Eta grabazioak egiteko zer gomendatuko zenieke bideozaleei?

- Lehenbizi ekipoa

prest izan behar dugu: bateriak bete, zintak eta filtroak prestatu etab. Horrelako detaileak gertu lagatzea oso inportantea da grabazio egunean arazorik ez izateko. Material guztia aurrez prestatua laga beharra dago.

Eta grabazioa egiterakoan dena jarraian grabatzea ez da komeni. Aurre-



AMAIA LABAIEN
(Islada bideogelakoa)

tik gidoi moduko bat lantzea oso ondo dator. Nahiz eta oso landuta ez izan ideia argi batzuk izan behar ditugu. Edozein ospakizunerako gidoi txiki bat egin dezakegu: lekuaren plano oro-

"Jaunartze edota ezkontza bat grabatu aurretik gidoi moduko bat lantzea komeni da"



Grabazioaren kalitatea irudiak eta soinuak emango dute.

kor bat lehenbizi eta horrik aurrera ospakizuneko detaile ezberdinak destakatu.

- Askotan beharbada grabazio luzeegiak izaten dira. Zein da iraupenik egokiena?

- Ez dakit, ordubate edo hiru ordulaurden grabatzearekin nahikoa dela uste dut. Ideia buruan baldin badaukazu kamararekin editatzen saiatzea da horretarako onena, lan dextente aurreztu daiteke. Bakarrik gauza interesgarriak grabatzen baldin baditugu, edizioa errezagoa izango da.

- Beste trukorik?

- Musika ekipoa eta bideoarena konektatuz gero audioa edo soinua sartzeko aukera izango dugu, musika sar dezakegu zati batzutan (ahaleginduko gara musika egoki bat aukeratzeko) baina beti komeni da soinu originala ere pixka bat mantentzea. Kalitatea irudiak eta soinuak emango dute. Eta inguruko zarata ebitatzeko mikrofonoa erabili behar da, kamaren mikrofono omnidirekzionalak inguruko zarata guztiak hartzen baititu. Fokoa izanez gero, berriz, ez zaio jendeari zuzendu behar eta azkenik, paisajeak grabatzeko filtroak eramatea ondo etorririko zaigu, bestela argia daukan zatiak dena hartuko du eta.

ZUBIETA
elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48



zumelaga
JATETXEA

San Antonio,
5 BERGARA
☎ 76 20 21

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!

Kilometroak egin eta herriz herri ibiltzen ohituta daude saltzaileak. Haruntz-honuntz hori dela medio-edo, ia ezagutu ere ez ditugu egiten. Bergaran 20 bat postu egoten dira zapatu goizero.

Bantziak, barruko erropak, oinetakoak, bitxiak, alfonbrak, lorak, sukalderrako tresnak...

Salgaiak hartu eta gehienak goizeko 7:30etarako ailegatzen dira Zurraderora. Horretarako bizi diren herritik Km. batzuk egin behar izaten dituzte.

Francisco Alvarez sukaldereko tresna saltzailea Bilbotik etortzen da. *"Horrela ibiltzen garenontzat 50-60 Km. ez da ezer. Lehen Tolosara ere joaten nintzen. Orain Gernika, Ondarru, Eibar, Markina, Mungia eta Bergarara mugitzen naiz. Egunero merkadilloz merkadillo, herri desberdinetara joaten naiz. Guk, oro har, astean jai egun bakarra izaten dugu, zerbait atera nahi badugu ia egunero lan egin behar dugu".*

Postua montatu eta 9:30ak alderako dena prest izaten dute. Eroslea, berriz, beranduago ibiltzen da. *"Zapatua delako izango da, baina Bergaran 11:30 alderarte oso jende gutxi ibiltzen da. Dena jasotzen dihardugunean etortzen da jende-*



Merkadilloko saltzaileek diote San Martin plazatik Zurraderora joan zirenetik gutxiago saltzen dutela.

Merkadilloa: zapatutako zita Herriz-herri saltzen

derik gebien". Goiza jendaurrean pasa, ahal duten guztia saldu eta ordubata aldean trasteak jasotzen hasten dira eta erdiak aldean joan egiten dira.

Urteetako esperientzia

Isabel eta Jose andragizon eibartarrak dira

Bergarara etortzen diren beteranoetarikoak; 15 bat urte daramatzate barruko erropak saltzen. *"39an, gerra ostean, hasi ziren Joserren gurasoak herriz herri saltzen -orduan 3 bat postu etortzen ziren-. Laga zutenean guk jarraitu genuen".* Jose Antonio Iglesias oinetako saltzailea Gasteiztik orain

dela 22 urtetik etortzen da; gutxien daramatzate hila bete batzuk besterik ez daramatzate, eta galtzetinak eta painueloak saltzen dituzte.

Plazan gehiago saltzen zuten

Saltzaileek diotenez herri guztiak desberdinak



PINTURAS BERGARA S.L.

- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- APAINKETARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK
- ERROTULOAK

Aranerreka, 32 behea BERGARA. Telefonoa eta faxa: 76 11 40

dira eta merkadilloan nabarmen geratzen dira ezaugarriak. *"Bergaran jendea serioagoa da; gauza garestiagoak edo klase gebiagokoak erosten ditu. Arrasaten ezagun da etorkin gebiago dagoela; jendea pezeteroagoa da, regateoa dago..."*.

Bestalde, gutxien saltzen duten herria Bergara dela diote. Plazatik Zurraderora etorri aurretik orain baino gehiago saltzen zutela diote denek. M. J. Gonzalezen ustez leku aldaketa merkadilloa marjintzeko modua izan da. M. Peñalverren iritziz UNEDeko ikasleekin ikaragarri saltzen zuten, *"orain aldrebes geratzen zaie tokia eta ez dira bona etortzen. Leku aldaketa guretzat oso kaltegarri izan da"*.

J. A. Iglesiasen esanetan, orain, gainera, ez diete furgoneta posturaino eramaten lagatzen, *"postutik ez dakit zenbat metrotara laga behar izaten dugu eta pisu handiekin ibili behar dugu batetik bestera"*.

Onena ordutegia eta nagusirik ez izatea

Saltzaileek diotenez, nagusirik ez izatea da euren lanak duen onenetakoa. *"Gu gara geure nagusi; egiten dugunaren erantzule geu gara. Horrez gain, oso ordutegia onena dugu, goizetan ba-*

karrik lan egiten baitugu". Jendearekin duten harremana ere ez dute saltzeko. J.A. Iglesiasek denda izan arren, nahia go du herriz herri ibiltzea. *"Hau ezin da dendarekin konparatu, nire semeak ere ez du nabi dendan aritzerik eta nirekin ibiltzen da herriz herri. Merkadilloan jendea ez dago dendan bezala erostera 'behartuta', jarrera desberdina du, tratua oso atsegina da..."*. Are gehiago, Meritxek, erizain izan arren, ez du lan horretan gehiago jarduteko asmorik. *"Herriz herriko salmentan ibiliz gero, ez dago lagatzerik"*.

Txarrena zergak

Saltzaileek arazorik handientzat ordaindu behar izaten duten dirua aitaten dute. F. Alvarezek dioenez hilean batz bestete 150.000 pzta. ordaintzen du, *"udalei ordaindu beharrekoa -Bergarakoari 9.000 pzta.-, gasoila, aseguruak, furgoneta, zergak, moduloa, furgoneta rentzako garaia edo gauzak gordetze-ko lokala..."*.

J. A. Iglesia, beste hainbat bezala, udalarekin dago haserre. *"Gure arazorik handiena udalak dira, abusatu egiten dute, ordaintzeko garioan dendei baino gebiagoko eskatzen digute."*

ZURRADEROKO MERKADILLOAN

Rosita Olañeta Eroslea



"Asko gustatzen zait merkadillora etortzea. Ahal dudan guztietan etortzen naiz. Gehien erosten dudana, lorak, barruko erropak, oinetakoak..."

Baina Bergaran harrokeria dago eta jendea lotsatu egiten da merkadillora etortzen. Badakit jendea hona ez etortzearen Arrasatera eta Eibarrera joan eta erosketak han egiten dituela. Gauza berdinak ditu Bergaran, baina jendeak hemen ez ikusteagatik, kanpora joaten dira".

Felisa Gabilondo Eroslea

"30 urtean lan egin dut; orain jubilatuta nago eta astero etortzen naiz gizonarekin eta ahiztarekin. Lehen etortzen nintzenean presaka ibiltzen nintzen, ezin nuen ezer erosi, orain, ostera, gauzak ikusteko aukera dut eta ikaragarri disfrutatzen dut. Gainera, beti topatzen dut guretzako moduko zedozer eta erosi ere egiten dut, oinetakoak..."



Mari Ines Lazkano Bergarako saltzaile bakarra

Merkadilloko bergarar bakarra da Mari Ines Lazkano. Josteko makinak, hariak, repuestoak eta berak bordatutako lanak saltzen ditu. Herriz herri ibiltzen ez den bakarra da gainera, bakarrik Bergaran egoten baita. "Postua berez ez da nirea, ni herriz herri ibiltzen den beste pertsona baten ordezt egoten naiz. Orain dela 7 bat urte hasi nintzen. Lehen aita egoten zen; berak laga zuenean hasi nintzen ni". Asko gustatzen zaio merkadilloan egotea, "ni ez naiz behartuta etortzen, ez da nire bizibidea; etxean bordatuak egiten ditut, eta merkadilloak nire lanak erakusteko aukera ematen dit. Merkadilloak jende asko ezagutzeko eta jendearekin egoteko modua ere eskaintzen dit".



**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA



LASA
Jatetxea

OZAETA JAUREGIA Tfnoa: 76 10 55 Faxa: 76 20 29

Elkarterik ez

Mertxe Peñalver Bizkaiko saltzaileen elkartereko idazkari da eta bere ustez, dituzten arazoak konpontzeko modurik onena elkarteetan batzea da. *"Orain ezin dugu ezer egin gure artean elkarterasunik ez dagoelako; gure helburua abalik eta gebien saltzea da".*

Orain Estatu mailan denak batuko dituen elkarte bat osatu nahian dabilta. *"Gasoila jaitea lortu dugu; eta, besteak beste, salmentak merkataritza nahi dugu, autonomoetan 4 orduko lana 8 ordukoa bezala ez or-*

"Bergaran jendea serioagoa da; gauza garestiagoak edo klase gehiagokoak erosten ditu"

daintzea... Horrelakoe-tan gabiltza".

Gutxietsitako lana

Gauzak mayoristen-gandik eta almazenetatik ekartzen dituzte. Mertxe, asko harrituko baditu ere, Londres, New York eta Portugalera joaten da erropa bila, jantzi desberdinak eskaini nahi dituelako.

Bere ustez euren lana jendeak ez du ezagutzen eta oker dago zenbait ustetan. *"Adibidez, nik orain pisua erosi dut eta jendeak gaizki begiratzten dit, 'alkilatu egingo zuen, bestela erosteko dirua nondik aterako zuten' galdetuz. Jendearentzat gu ez gara langile, kinkillerotzat hartzen gaituzte, gutxietsita gaude; bankuetan nekez lor-*

tzen ditugu maileguak. Zenbait bezerok er-tontotzat hartzen gaitu, bergarar batek enkojitutako jertsè bat ekarri-zigun, sekula ez zuela erabili esanaz. Jendeak ez du ulertzen hau beste lan bat bezalakoa dela, eta lan asko baino atseginagoa eta esker onekoagoa. Ezagutuz gero ez litzateke horrelako ezer gertatuko".



"Eguraldi txarreakin inoiz baino gehiago saldu izan dut".



Ikusi, begiratu, miatu..., eta azkenean erosi?

BERGARA
Karrozeriak
Txapa - Pintura
Zubieta, 46 BERGARA
 ☎ 76 12 31

Era guztietako marrazki, argazki, letra eta abarrak kamiseta, sudadera edota nikietan inprimitzen ditugu, zuri-beltzean zein koloretan. Fotokopiak koloretan. Futbol, saskibaloi edota ziklismoko kamisetetan letrak, zenbakiak edo dibujoak jarzen ditugu. Publizitate artikulua: boligrafoak, metxeroak, gorrak, agendak...

San Lorenzo, 7 behe. ☎ 76 50 39

Irizar, 2
 ☎ 76 14 96
JAUJA KIROLAK

Kale saltzaileek diote Zurradero ez dela toki ona.

- Gure ustez dagoen tokian ez dago inolako arazorik; eta saltzaileen aldetik ere ez dugu kexarik jaso.

Plazan obrak zirelako eraman zen Zurraderora, hala ere, bazegoen plazatik kentzeko asmoa, plaza ez baita merkadilloa jartzeko leku egokia. Garbi dago merkadilloak erdialdean egon behar duela, jendea ibiliko den tokian.

Jabier Gabilondo Gobernazio zinegotzia

Aztertu zen Bideberrin jartzea, baina aparkalekua kentzea arazo handia zen; Estazio edo Poligono aldean ez lukete nahiko saltzaileek urrun dagoelako; Espoloian jartzeko proposamena egin arren, saltzaileek ez zuten onartu. Azokaren ondoan jartzea ere aztertu zen, baina ez zegoen

denentzako lekurik. Hortaz, gure ustez, oraingoa leku ona da, azoka gertu dago, erdialdean dago eta handitzeko aukera ere ematen baitu.

- Furgonetak postu ondoraino zergatik ezin dituzte eraman?

- Postuen azpian garajeak daude eta furgoneta-kamioien pisuak arazoak


lagatzen zaie Zurradero.

- Postua jartzeagatik diru asko kobratzen zaiela diote.

- Lizentzia edo tasa fiskaletan beste herrien antzera gabiltza; aspalditik daude jarrita eta urteko KPIa besterik ez zaie gehitzen.

- Postua jarri nahi duenak zer egin behar du?

- Zenbat metrotako plaza behar duen esan beharko dio udalari. Lekua baldin badago eta lizentzia fiskala, autono-



"Espoloian jartzeko proposamena egin arren, saltzaileek ez zuten onartu".

"Oraingoa leku ona da merkadilloa jartzeko"

sortuko lituzke; horregatik ezin da postu pareraino furgonetarik eraman. Gainera, trasteak karriartzeko lana errazteko libre

moa, kotizazioak, tasak... hau da, legeak eta ordenantzek dioten baldintzak betetzen baditu plaza emango zaio.

**Haurdun bazaude
LAURA da zure
jantzidenda.**

**Udaberriko moda
gaztea jazteko neurria
ez da izango arazoa.**

Tailaje zabalena dugu.

Laura



**Erdiko kale, 30
Tfnoa: 79 05 80
ARRASATE**

Zer egingo duzu Aste Santuan? Kanpora joateko asmoa daukazu?




Juani Gutiérrez
32 urte, langilea

Ez daukagu ezer erabakita baina bai, kanpora joango gara. Segun nolako eguraldia egiten duen... Hala ere, Aste Santuko larunbatean lana egin behar dut.



Cristina Fernández
22 urte, langilea

Bai, Nafarroara joango naiz, eguzkitan egon eta deskantsatzera. Erriberan igaroko dut Aste Santu osoa.




Alex Biziola
15 urte, ikaslea

Ez dakit, ez daukagu planik oraingoz. Niri, egun batzuk pasatzeko, mendira joatea gustatuko litzaidake.



Denis Armendariz
13 urte, ikaslea

Igual Frantziara joango naiz familiarekin eta ondoren lagunekin kanpinera joateko gogoia daukat.



Iñigo Olañeta
13 urte, ikaslea

Aste Santuan baserrira noa, Aramaiora. Gustora ibiltzen naiz han. Bergaran ere egun batzuk igaroko ditut.



Mari Carmen García
49 urte, langilea

Ez naiz irtengo. Lan egin behar dut eta beraz hemen geratu beharko naiz. Gustatuko litzaidake irtetzea baina ezin..

INGELES IKASTARO INTENTSIBOAK

BI HILABETE: Apirilaren 15etik ekainaren 13ra.

EGUNERO, BI ORDU ETA ERDI

MATRIKULA EGITEKO EPEA: Apirilaren 3ra arte.

INFORMAZIO GEHIAGO: UNED (3. solairua) ☎ 76 06 87



Goizez ala arratsaldez egin, ikasleek erabakiko dute.



Ingelesen maltzurkeriak

Egun hauetako batean, goizean etxetik irteteen egunkariari begirada bat ematen nion bitartean Ingalaterratik zetorren albiste batekin egin nuen topo. Dirudienez, behien janarietan dagoen bazilo arraro batek erabat nahasten du abere horien nerbio sistema eta erotu egiten dira. Ulertu nuenez, gizakien artean ere halako kasuren batzuk agertu dira Britainia Haundian.

Miseria horietatik urruti sentitzen nintzen, baina etxera iritsi nintzenean ikararuta geratu nintzen: Arraioa -pentsatu nuen- txahal saiheskia!". Goseak eta erreparoa elkarren kontrako borrokan ziharduten bitartean erreparoa bat eman nion gainera zetorkigunari: aurrerantzean, York-eko duke-saren harrera ekitaldietan antxoa ogitartekoak eta tortila pintxoak jaten imaginatzen nituen, albondiga eta tripakien orde, esate baterako. Urdaitegiek ateak parez pare zabalik izango lituzkete Piccadilly Circus-en, Mc Donalds eta Burger Kings-en kaltetan. Estaturuaren goi-bileretan ere berakatz zopak eta bokadiloak hartuko lukete solomilo eta entrekotaren lekua.

Hortan nenbilela agertu zen telebistan Luis Atienza xerra patatekin janaz (nere ustez ejenplua eman nahian), eta momentuan ulertu nuen fileteak eta Palomareseko hondartzak duten parekotasun bera dutela ministroak eta Manuel Fragak, eta ingelesen maltzurkeriak, berriz ere, lortuko zuela euren ganadu zahar guztia Europako Elkartearen kontura hiltzea.

Emilio VINUESA



Aroaren azkarra

Udaberriak gaur lau egun dauzka. Meteoroeak bat egin dute aurten egutegietako datuekin. Eta halako giro goxo epelagoa somatu dugu egun batetik bestera, ia derrepentean, eta amets lauso bat besterik ez da, seguraski, arestiko elurtea, bide bazter eta etxeko epeletara bilarazi gintuena.

Urte sasoiak azkar aldatu zaigu, beraz, eta aldatze horren eraginez pasaberriko gorabeherak ere ahaztu edo aspaldian gertatutzat jo ohi ditugu.

Bizi garen aro azkar eta berrizalean antzera gertatzen da (edo irudipen hutsa besterik ez ote da?). Politikan, adibidez, hauteskunde ondoko giro tratalariak nolabaiteko lasaitu antzekoa ekarri baitigu, kanpainak bukaerako zarata jasanezin harekin konparatuta.

Agian, begi aurreko ikuspegi naturalean emandako eta emango diren aldaketak ere bat datoz horrekin guztiarekin.

Aukera polita izan liteke, orduan, gure inguruak berriz bixitatzeke, AHTak, Eibar-Urbina porlanpistak eta bestek, udaberriarekin gertatu zaigun bezala, pentsatu baino azkarrago itxuraldatu eta ilundu baino lehen.

Iñaki MOZOS

Cristina Garciandia Mujika

DERMATOLOGIA

BENEREOLOGIA

MEDIKUNTZA KIRURJIKOA

San Martin Osasundegia
Ramón María Lili, 2 (Ate nagusia)
Telefonoa: 76 59 39



■ **Kultur astea institutuan**

Kultur Astea izan dute egunotan Bergarako **Ipintza Institutuan**. Ikasleen arteko giroa piztu eta era askotako ekintzak Institutura ekartzeko asmoz programa zabala prestatu da eta ikasleek primeran

pasatzeko aukera izan dute. Astelehenetik ostiralera

bitartean, besteak beste, **Peter Robertsen** mimo emanaldia, lehiaketak, kirol iharduerak, **Taun-Taunen** txotxongiloak, **Old Boys Quintet** eta **Ñaco Goñiren** jazz eta blues kontzertuak, eta beste hainbat ekitaldi izan dira. Asteazkenean, esaterako, **Jon Lazkano** mendizalearen diapositiba emanaldia izan zen, argazkian ikus daitekeenez. Lazkanok Pakistan eta Iranera egindako irteeran gertatutakoak azaldu zizkien ikasleei. Bitartean, ikasle talde batek eskalada praktikak egin zituen Institutuaren paretetan. Lazkanoren ondorengoak izango ote?



■ **Hizkuntza minorizatuak aztergai**

Joxu Arana Jarduneko dinamizatzaile ohia **Cerdeñan** izan da martxoaren 16tik 23ra bitartean. Katalunia, Irlanda, Holanda, Ingalaterra, Alemania eta Cerdeñako beste 9 lagunekin batera Cerdeñako **Alghero** herriko egoera linguistikoa aztertzen jardun du Joxuk. Europa Ekonomikaren plangintza bati esker egin ahal izan da azterketa. Algheron katalana hitzegiten da eta bertara joandakoek horren zergatia ikertzeko aukera izan dute. Elkarrekin primeran pasatzeaz gain, hizkuntza minorizatuak oraindik daukaten indarra gertutik ezagutu ahal izan dute.

ZUBIAURRE
aroztegia

Sarrerako eta barrurako atekak, horma armairuak, tarimak, egurrezko eta PVCzko leihoak, era guztietako arotz lanak...

Zubiaurre, 2 ☎ 76 15 14 / 76 35 73

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro, 8

Tfnoa: 76 27 70

BERGARA

■ **Odol ateraldiak direla eta**



Deba Garaiko odol emaleek prentsaurrekoa eman zuten larunbatean Eibarren. Odol emaleek emandako datuen arabera, Bergara da Deba bailarako herrietatik


donazio gehien egiten dituen herria, Eibar, Elgoibar edota Oñatiren aurretik (Arrasate ez da estatistiketan agertzen). Joan den urtean 1.231 donazio egin ziren gure herrian. Bestalde, 1.000 biztanleko egiten diren donazioei dagokienean, Bergara hirugarren tokian dago. Antzuolan 1.000 biztanleko 117 donazio egiten dira, Elgetan 105 eta Bergaran 78. **Fernando Idigorasek**, Bergarako Odol Emaleen presidentea (argazkian), harro egoteko motiboak baditu... Hala ere, odol emaleek 18 urtetik 23 urtera bitarteko odol emale gehiago botatzen dute faltan eta horretarako eskoletara zuzentzearen garrantzia azpimarratu zuten.

Zertan dihardute ba?



Benito Cantero 34 urteko argazkilariak brontzeko bi domina lortu ditu Arte Fotografikoaren Nazioarteko Federazioak Reusen (Tarragona) antolatutako kirol argazkien lehiaketan. Mundu osoko 130 argazkilaritari inguru aurkeztu dira eta guztira 600 bat argazki izan dira lehian. Epaimahaiak Benito Canteroren "*Alphubel*" eta "*Peru-Saroi*" izenburuko lanak aukeratu ditu saritutakoen artean. Biak ere mendiko argazkiak dira, Benitok Alpeetan eta Urbian ateratakoak. "*Oso pozik nago izen haundiko lehiaketa delako*" esan digu Benitok. Egunotan Canteroren argazki erakusketa Eibarko *Kultu* tabernan ikus daiteke eta jarraian Legazpiko Kultur Etxean izango da.

■ **Sari bikainak**



Andoitz Igarza saritua izan da **Bergara K.E.k** Bergara eta Mutrikuren arteko futbol partiduan egindako zozketan. 4.555 izan da zenbaki saritua eta Andoitzek telebista bat eta lau lagunentzako afaria Azpeitxi jatetxean eskuratu du. Argazkian Andoitz **Angel Izuskiza** eta **Miguel Unamuno** "*Piti*"ren artean.

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, atekak, manparak...

Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik



Erakusketa: Masterroka 14, behea BERGARA
Fabrika: Zigarroia 1, 8. pabiloia ARRASATE
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

AGENTZIA:
J. ELKORO

Ibargarai, 2 behea
Tfnoa: 76 57 85
BERGARA

VITA

CAUDAL

ZURICH




UNIBER

HISPANIA

ZURICH TALDEA ASEGURUAK

Gotzon Barrenetxea-Arando

Urtero bezala, Gotzon Barrenetxea-Arandok (72 urte) bere ezagunen artean banatzeko 3.000 gurutzetxo inguru egin ditu Erramu Domekarako. Gotzon arotza izan zen jubilatuta arte eta oraindik ere pazientzia handia eta pulso bikaina erakusten du neurri ezberdineko gurutzetxoak egiterakoan.





"Orain 35 urte hasi nintzen Erramu Domekarako gurutzetxoak egiten eta guztira, irailetik hona, 3.000 inguru egiten ditut, neurri ezberdinekoak. Herri osoan banatu eta kanpora ere bidaltzen ditut, Setienek ere kotxean eramaten du"


- Noiztik gurutzetxoak egiten?
- Orain 35 bat urtetik.
- Noiz hasten zara lanean?
- Irailean, arbolak izerdia daukanean.
- Zenbat ordu ematen dituzu gurutzetxoak egiten?
- Egutero 4-6 bat. Aurten 700 ordu daramatzat.
- Zeintzuri banatzen diezu?
- Lagunei, tabernariei, monjei, Mizpirualdekoiei... jende askori.
- Kanpora bidaltzen dituzu?
- Baita. Bartzelonara, Madrilera, Galiziarara... Setien gotzaiak ere automobilen eramaten du.
- Nola ospatzen duzu Aste Santua?
- Mezetafa joanez, familiarekin eta lagunekin bilduz...
- Non igaroko duzu Aste Santua?
- Bergaran.

- Prozesiorik botatzen duzu faltan?
- Bergaran izaten da, Erramu Domekan, Sierbetatik Santa Marinara.
- Mezetara zenbatero joaten zara?
- Domekero.
- Zein ordutan jeikitzen zara?
- Setan.
- Nola igarotzen duzu eguna?
- Ortuan lan egingez.
- Lagunekin txikiteoa egiten duzu?
- Bai, txikito pare bat hartzen ditugu.
- Asteko egunik gogokoena?
- Zapatua.
- Janari eta edari bat?
- Arraina eta ardoa.
- Kirol bat?
- Pelota.
- Frontoira joaten zara?
- Batzutan.
- Nork irabaziko du eskuz banakako txapelketa?
- Joan den urtekoak, Belokik.
- Pertsonaia historiko bat?
- Sabino Arana.
- Euskal Herriko lekurik politena?
- Larraitz, Lierni... inguru hori.
- Bidaia bat nora egingo zenuke?
- Estatu Batuetara edo Kanadara joatea gustatuko litzaidake.
- Egindako bidaietan gehien atsegin zaizun lekua?
- Suiza eta Noruega.

Zeuk erabakitzen duzu zenbat aurrezten duzu gasoilean.









Gastatzen duzun gasoileko bi pezetatik lau pezeta bitarte aurrez ezazu.

Real Automobil Klubeko bazkide gisa, R. A. Klubak ematen duen dabilgintza txartelarekin, 3.000 zerbitzugune gehiagotan nahiz Espainiako autopistetan ordaingune guztietan ordain dezakezu. Modu batean eta dirurik eraman beharrik izan gabe. Errekargurik gabeko hilabeteko faktura zehaztu eta bakar batekin azken pezeta ere kontrolatuz. Txartela, R.A.Klubeko bulego eta ordezkariatzatan lor dezakezu. Eska ezazu oraintxe bertan





Informa zaitetz. Dei ezazu oraintxe bertan
76 23 30
Edo etor zaitetz Klubera: Ramón María Lili, 6-Bergara

ETXEBIZITZA

Pisua salgai. 80 m2 eta 6 m2ko terraza. ☎ 76 03 75.

Etxea salgai Koldó Eleizalden. Prezio interesgarria. ☎ 76 35 20.

Pisua salgai Barrenkalen. Berriztuta. ☎ 78 70 30.

Pisua salgai Bidekurutzetan. ☎ 76 43 22/76 56 07.

Pisua salgai San Antonion. Amueblatuta. ☎ 76 05 99.

Etxea salgai Katabian. Amueblatuta. ☎ 76 44 55.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. 90 m2. ☎ 76 31 57.

Garajea salgai Ibargarain. 22 m2. ☎ 76 44 25.

Garajea salgai Santa Marian. ☎ 76 29 36.

Garajea (2 plaza) salgai Aranerrekan. ☎ 76 06 96.

Pisua salgai K.Eleizalden 25ean. ☎ 76 09 37/53 55.

Pisua alokatzen da Antzuolan. ☎ 76 64 65.

Pisua salgai Antzuolan. ☎ 76 25 32.

Garajea salgai Bolun (2 plaza). ☎ 76 54 11.

Garajea alokatzen da San Lorentzon. ☎ 76 29 33.

DENETARIK

Karro-karabana prezio onean salgai. ☎ 76 00 56.

Kawasaki GPZ 500 motorra salgai. ☎ 76 33 46.

Nikon 70210 "D" objetiboa salgai. B + W filtroa, parasol originala. Erabili gabe. ☎ 76 52 31 (Jesus, gaez).

Hi-Fi kate txiki bateko bi bafle salgai. ☎ 76 52 31.

Suzuki GSx 600F motorra salgai. ☎ 76 20 26 (gaez).

Golf 1600 kotxea (2. seriekoa) salgai. SS-V matrikula. ☎ 989 58 40 24.

486 Compaq ordenagailua saltzen dut. Oso egoera onean. 20.000 pezeta. ☎ 76 00 91 (Javier).

Renault 4 F6 kotxea salgai. ☎ 76 22 11.

Ford Sierra kotxea (SS-AD) salgai. ☎ 76 33 10.

Boxer txakurkumak salgai. ☎ 76 28 68 (21.00-23.00).

Ordenadore bat salgai. ☎ 76 27 59.

Lancia Delta GTI kotxea salgai. ☎ 76 59 40 (Jorge).

Montesa H7 Enduro motorra (250 cm3) salgai. 100.000 pta. ☎ 76 31 40.

Pekines txakurkumak salgai. ☎ 76 26 92.

Bizikleta sillin berri bat salgai. ☎ 76 52 31.

Opel Corsa (SS-U) kotxea salgai. ☎ 76 46 54.

Gimnasia egiteko motorizatutako 6 mahai salgai. Egoera onean ☎ 76 13 46.

LANA

OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 40 89 (Gemma).

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 48 65 (Paki).

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 06 56 (Irene).

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

Klase partikularrak ematen dira. ☎ 76 33 26.

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 18 75.

Etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 38 00.

Neska euskalduna behar da haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. ☎ 76 15 12.

Aleman diplomatuak klaseak emango lituzke. ☎ 76 12 77 (Maite).

Neska batek haurrak edo zaharrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 46 14 (Pili).

Aleman diplomatuak arratsaldez klase partikularrak emango lituzke. ☎ 76 04 93 (Idoia).

Lan egiteko emakume bat eskeintzen da. ☎ 76 38 83 (eguerdiz eta gaez).

Zaharrak zainduko nituzke, egunez zein gaez. ☎ 76 11 11.


**OILAGORRA
TABERNA**

Barrenkale, 21 BERGARA

Angiozar, 37 ☎ 76 27 82



**ARRASTRO
Birziklaia**



Erabilitako objetuen berreskurapena:
altzariak, saneamendua, etxerako tresneria, aintzinakoak.
Altzari bilketa • Zurgintza lanak • Beira eta ispiluak.


BIGARREN ESKUKO ALTZARIAK PREZIO ONEAN!!

Erabiltzen ez dituzun altzari edo tresneriarik badaukazu dei egin 78 32 88 telefonora eta geuk batuko ditugu

Gure ordutegia hurrengoa da:

Astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 4etatik 8etara. Larunbatetan, goizeko 11etatik ordu 2etara

Kalezaharra 54 - OÑATI - Tfnoa: 78 32 88



"Kantatzea oso gustoko dugu eta egunen batean beltzen antzera instrumento barik abestuko dugu"

"Adituek ikusten gaituztenean igartzen dute musika eskola batean hezituak garela"

ASIER ELORZA, OLD BOYS QUINTET JAZZ TALDEKOA

"Azkenaldian Metallica gutxiago eta Charlie Parker gehiago entzuten dut"

Musika Eskolan ezagutu zuten elkar; orain dela lau bat urte ekin zioten eta pixkanaka-pixkanaka, inguruko herrietako hainbat tabernatan izan dira. Jesus Alvarez (saxoa), Josu Unamuno (kontrabajoa), Iñigo Alberdi (pianoa), Enri Txurruka (bateria) eta Asier Elorzak (tronpeta) osatzen dute Old Boys Quintet, Bergarako "mutil zahar" jazzeroak. Gazteenak 19 urte ditu eta zaharrenak 25. Ipintza institutuak antolatu duen kultur astea dela eta institutuan jo dute ostiralean.



Old Boys Quintet, Bergarako jazzeroak.

- Jazz kontzertuak ikustera joaten al zarete?

- Bai, jazzaldietara eta hemen inguruan antolatzen diren emanaldietara joaten gara.

- Jazza jotzea zaila dela esan ohi da.

- Bai, baina gure mailan jotzeko ez da oso nekeza, kosta egiten zaigun arren. Gainera, jazz komertzialena edo entzuteko errezena dena jotzen dugu. Jazz klasikoena entzuten eta jotzen dugu: Charlie Parker, Miles Davis... Bestalde, geure artean esaten dugu txarrak

"Jazz komertzialena edo entzuteko errazena dena jotzen dugu. Bestalde, geure artean esaten dugu txarrak baina dibertigarriak garela"

baina oso dibertigarriak garela. Gure kontzertuak ikustera datozenek primeran pasatzen dute.

- Bertsioak egiten dituzue bakarrik?

- Ez, geuk konposatutako lau bat edo badaukagu, baina zuzenean hiru jotzen ditugu. Akordeak konposatzerakoan, askotan gertatzen zaigu pianoa jotzen hasi eta jazz baino gehiago musika klasikoa irtetzen zaigula. Adituek ikusten gaituztenean igartzen dute musika eskola batean hezituak garela.

- Sekula pentsatu duzue ahotsik sartzea?

- Ez, baina kantatzea gustoko dugu eta egunen batean beltzen antzera instrumento barik kantatzea pentsatu dugu. Egunen batean egingo dugu.

- Eta jantziak zaintzen al dituzue?

- Bai..., ez daukagu uniformerik, baina noizean behin korbata jantzi izan dugu zuzeneko emanaldietan.

- Euskal Herriko jazz taldeak jarraitzen dituzue?

- Bai, Iñaki Salvador, Angel Celada eta hauek ikustera joan izan gara eta gustatzen zaizkigu.



1. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. ERROTAGAIN	37	15	70	27
2. MONGATXURRAK	31	15	68	26
3. BAR CANALEJAS	31	14	48	17
4. MADURA INDUSTRIAS GOL	26	14	45	33
5. OGIZUN	26	14	47	44
6. KABIA	19	14	31	37
7. ARLOTEAK	18	15	26	37
8. BILDURBAREK OPEL/LAM	16	14	34	39
9. ORTZI	13	14	22	42
10. UFALA	4	14	32	70
11. OZAETA	4	15	32	74
12. BERGATRANS	0	0	0	0

2. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. JALUA OH ZEREZOS	42	16	110	51
2. A ZE FLAXA	38	17	73	45
3. PAGOMENDI	29	15	68	47
4. ARTUSAMAK	29	15	54	38
5. UVE BIKOITZA	22	16	44	60
6. NAIKARI HOOLIGANS	22	16	57	58
7. HALTZARI	18	16	39	65
8. ETXAGI	16	17	70	96
9. KAYAK OS JARDINEIROS	16	16	67	67
10. AUTOBEREZI	15	16	46	58
11. ERI	14	16	44	59
12. INDARGORRI	12	16	19	40

3. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. SOROPOTROAK	42	17	92	48
2. KIROLZALEAK	37	17	85	49
3. AMOZKIBAR	32	17	46	29
4. LA JUVE	31	17	58	53
5. EZINLEIKE	30	17	78	49
6. NEKROFIKOS	27	17	68	71
7. MOSKIS	23	17	44	65
8. CONSTRUCCIONES BERGARA	22	17	53	61
9. EH BITERRAK	17	17	36	67
10. IGANDEKOAK	13	17	43	70
11. SHAKTALE	11	17	36	67
12. ARI ARI	9	17	63	80

4. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. FAC	37	15	77	32
2. GUADALEST	33	16	66	31
3. TXIPIRON	32	16	61	39
4. PJS	28	15	65	41
5. OSINTXU	24	15	61	50
6. MATXAKATEGI	23	15	62	64
7. PATXARAN TEAM	22	16	55	83
8. LABEGARAIETA	18	15	49	68
9. PATA NEGRA	18	16	49	54
10. ALDOKA MALDOKA	11	15	43	40
11. XURRUPAK	1	16	27	98

TALDEAK



Mongatxurra taldea Jon Alberdi, Asier Elorza, Asier Agirrebeña, Lauri Askargorta, Andoni Arroio, Oscar Vicente, Iban Etxeberria, Jon Ander Urisabel eta Victor Vicentek osatzen dute. Talde honek 5 urte daramatza txapelketan jokatzeko eta palmaresari begiratu onenarikoa da, bi aldiz txapelketa izan baita. Aurtengo denboraldian ere bide beretik doaz lehen mailako taldeen artean aurreko postuetan baitago. Halaber, talde honetan BKEko jokalaririk ohien presentzia nabarmentzekoa da eta hori nabaria da erakusten duten jokoen.

PARTIDUAK

LARUNBATEAN BARRUAN

09.00: Autoberezi-Artusamak • **Osintxu**

LARUNBATEAN KANPOAN

09.00: Labegarieta-Osintxu • **Xurruapak**

10.00: Patxaran T-Xurruapak • **Labegarieta**

12.00: La Juve-Igandekoak • **Antolaketa B.**

15.45: Aldoka Maldoka-FAC • **C. Bergara**

16.45: Kirolzaleak-C. Bergara • **Aldoka M.**

IGANDEAN BARRUAN

16.00: Errotagain-Bildurbarek • **Ogizun**

17.00: Madura-Ogizun • **Bildurbarek**

18.00: Ufala-Bar Canalejas • **Madura**

19.00: Ozaeta-Ortzi • **Bar Canalejas**

20.00: Kayak Os Jardineiros-Eri • **Ortzi**

IGANDEAN KANPOAN

16.00: Nekrofilikos-Ari Ari • **PJS**

17.00: PJS-Matxakategi • **Ari Ari**

18.00: Pata Negra-Guadalest • **Matxakategi**

EMAITZAK

1. MAILA

KABIA-MONGATXURRA **1 - 5**

MADURA INDUSTRIAS GOL-BAR CANALEJAS **3 - 1**

UFALA-BILDURBAREK OPEL/LAM **2 - 2**

ERROTAGAIN-OZAETA **11 - 4**

ARLOTEAK-ORTZI **1 - 0**

2. MAILA

ETXAGI-A ZE FLAXA **4 - 16**

3. MAILA

EH BITERRAK-AMAZKIBAR **2 - 3**

OHARRAK

ANTOLAKETA BATZORDEAK JAKINARAZI DIGU PAGOMENDI ETA ARTUSAMAK TALDEEN ARTEKO PARTIDUA 1 ETA 0 GERATU DELA. HALABER, PUNTU BANA KENDU ZAIELA TALDE BIEI, PARTIDUAK ARBITRATZERA EZ AGERTZEAGATIK.

BESTALDE, NEKROFIKOS TALDEARI BI PUNTU KENDU ZAIZKIO PARTIDU BAT ARBITRATZEARI LAGATZEAGATIK. AZKENIK, ERI TALDEKO MIKEL GARITANO JOKALARIARI BI PARTIDUAKO ZIGORRA EZARRI ZAIO EPAILEARI IRAINAK EGITEAGATIK. HORRELA, BADA, IGANDE HONETAN EZIN IZANGO DU KAYAK OS JARDINEIROS TALDEAREN KONTRA JOKATU.

TALDEAK



Naikari Hooligans taldea Txomin Arietaleaniz, Gorka Retolaza, Jose Antonio Gonzalez, Joseba Ugalde, Jose Luis Barrutia, Unai Salaberria, Ibon Arana eta Patxi Molinak osatzen dute. Hainbat urte daramatzate txapelketan jokatzeko eta lehen mailan izan diren arren, aurtengo denboraldian 2. mailan dabilta. Halere, emaitza onak lortzen ari dira eta igotzea zaila duten arren, mailari eusteko ez dute arazorik izango. Talde ingelesaren jarraitzaileak ez bezala, mutil "formalak" dira Hooligans bergararrak.

TXINPARTAK

Aranzabal
Lagunartea

Astelehenean arratsaldeko 8etan Aranzabal Lagunartearen aurkezpen ofiziala egingo da Pertxa Elkartean. Bertan, Iñaki de Mujika kazetaria eta Agustin Aranzabal Realeko hainbat jokalaria, prestatzaile eta direktiborekin batera izango dira.

Aerobic ikastaroa

Udal Kirol Zerbitzuak antolatzen duen aerobic ikastaroak ordutegi berria izango du apirilaren 16tik aurrera. Astearte eta ostegunetan arratsaldeko 3.30etatik 4.30etara izango da. Izen-ematea Kirol Zerbitzuan (77 91 67).

Uretako soroslea

Uretako sorosle titulua ateratzeko ikastaroa antolatu du Kirol Zerbitzuak. Klase teorikoak apirilaren 15etik 19ra eta 22tik 26ra izango dira eta praktikoak, maiatz eta ekainean zehar. Informazio gehiago Udal Kirol Zerbitzuan jaso dezakezue.

III. Txakur Leren Lasterketa
jokatuko da domekan Gorlan

Igandean goizeko 11etatik aurrera Gorlan III Txakur Leren Lasterketa jokatuko da. Antolatzailuek lasterketan 50 bat Musher, leren gidariak, izatea espero dute. Hori-en artean joan zen urteko txapelduna, Goi Del Real madrildarra bertan izango da eta Axen Garitano bergarra ere 7 txakurreko lera batean izango da. Esan daiteke estatuko onenak izango direla.

Zirkuitoa iazko berbera da eta 9 km. inguru ditu. Lasterketa hasi baino ordu bat lehenago Gorrara joandako hurrek leran ibiltzeko aukera izango dute eta larunbatean gidariak zirkuitoan zehar entrenamenduak egiten



Estatuko onenak izango dira igandean Gorlan.

ibiliko dira. Antolatzailuek Gorrara txakurrak lotuta eramatea eskatu dute lasterketako txakurrekin arazorik ez izateko.

Leretan doazen txakurren arabera, zortzi maila

izango dira eta irabazleak 70.000 pztako saria jasoko du. Kantina inguruan txakur lerekin zerikusia duten produktuak jarriko dira salgai eta parapente erakustaldia ere egingo da.

Gimnasia erritmiko taldea bikain



7 talderen artean nabarmendu ziren bergarrak.

Aranzadi ikastolako gimnasia erritmikoko taldea 7 taldetatik onena izan zen alebin mailan joan zen asteburuan jokatutako Gipuzkoako eskolarteko txapelketan. Banakako probetan ere emaitza onak lortu zituzten: infantiletan Nerea Aiestaran 3. geratu zen eta kadeteetan Lorea Askasibarrek irabazi zuen. Jubeniletan Ezozi Artaetxerria 2. izan zen eta postu berbera lortu zuen Amaia Torrek alebin mailan. 100 bat neska aritu ziren.

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta, 24 BERGARA
☎ 76 13 35

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta, 5
☎ 76 20 34

LARRAÑAGA
eta **ZUBIA**
Banatzaileak

Errioxako ardoa, olioak,
esnea, lejiak...

Martokua, 32 ☎ 76 45 94

KARTELDEGIA

FUTBOLA

◆ Bergara-Tolosaldea

Preferente maila.
Larunbata, 17.15. Ipintza.

◆ Bergara-Arrasate

Lehen erregionala.
Igandea, 17.00. Ipintza.

◆ Bergara-Beti Ona

Ohorezko mailako jubenilak.
Larunbata, 15.30. Ipintza.

◆ Bergara-Lengokoak

2. mailako jubenilak.
Larunbata, 11.30. Ipintza.

◆ Bergara-Hondarribia

Lehen mailako kadeteak.
Igandea, 11.00. Ipintza.

◆ Bergara-Antzuola

2. mailako kadeteak.
Larunbata, 10.00. Ipintza.

NESKEN FUTBITOA

◆ Berdin Du-Potzu T. Z.

Igandea, 16.00.
Migel Altuna Institutua.

◆ Almondigak-Blue Star

Igandea, 16.00.
Migel Altuna Institutua.

ESKUBALOIA

◆ Bergara-Goierri

Kadete mutilak.
Larunbata, 11.00.

◆ Bergara-Kukullaga

Kadete neskek.
Larunbata, 16.15.

◆ Bergara-Kukullaga

Jubenil neskek.
Larunbata, 17.30.

◆ Bergara-Bidebieta

Kadete mutilak.
Igandea, 9.30.

◆ Bergara-Tolosa

Senior mutilak (2. territoriala).
Igandea, 11.00.

◆ Bergara-Vitoria

Senior mutilak (2. nazionala).
Igandea, 12.30.
Guztiak Kiroldegian.

Julen Masach

Realeko prestatzaile fisikoa

Julen Masachek 29 urte ditu eta Bergaran jaio den arren umetatik Deban bizi da. Madrilen INEF tituloa atera zuen eta ondoren, Gasteizko IVEF eskolan 5 urtetan irakasle izan da. Halaber, Alaves taldeko prestatzaile fisikoa izan da eta aurten Realak fitxatu du.

- Salto handia al dago Alavesetik Realera?

- Salto handia da. 2.B mailan egotetik lehen mailara pasatzea eta gainera Realera, gipuzkoar moduan nire ametsetako kluba; bai salto handia dago. Aurtengo denboraldia jokalaria ezagutzeko, klubaren egitura ikusteko eta lan berriari neurria hartzeko izan da.

- Konkretuki zein da prestatzaile fisiko baten lana?

- Prestatzaile fisikoak jokalarien lan fisikoa zuzentzen du. Jokalari bakoitzaren ezaugarri fisikoak, batez ere azkartasuna eta erresistentzia, lantzen ditut. Halaber, jokalaria zein postutan jokatzen duen kontuan hartuta prestaketa fisiko egokitua egiten dugu.

- Futbolarietako nor-malean ze arazo fisiko izaten dituzte?

- Txokeak eta kolpeak asko izaten dira partiduetan eta horrek artikulazioetan arazoak sortzen ditu. Belaun eta orkatiletako zaintiratuak izaten dira arazorik orokorrenak. Sarri, partidu edo entrenamendu asko egiteagatik muskuluen so-

brekargak ere izaten dira. Pubiseko osteopatiak ere arazoak ematen ditu, baina gero eta gutxiago izaten dira futbolean.

- Realeko zein jokalaria da fisikoki indartsuena?

- Argi dago lehen mailan jokatzekeo fisikoki indartsu egon behar duzula, agian jokalaria batzuk nabarmenduko dira, baina guztien maila fisiko ona azpimarratuko nuke.

- Beste kirol batzuekin konparatuta, txirrindularitzarekin adibidez, futbolarietako gutxiago entrenatzen dute...

- Kontutan izan behar da kirol desberdinak direla. Txirrindulariek gehiago entrenatzen dute, baina lesio mailan futbolean arazo gehiago dago eta horregatik gutxiago entrenatzen da. Bestalde, 11 hilabetetan lehiatzen diren futboleko eta igandero partidua daukatzunean ezin duzu gehiegi entrenatu igandean fresko egon ahal izateko.

- Real UEFAra?

- Aukerak dituztenen artean gaude eta emaitza onek jarraitzen badute, uste dut baietz, sailkatuago garela.



"Belaun eta orkatiletako zaintiratuak izaten dira arazorik orokorrenak".

"Realeko jokalaria guztien maila fisiko azpimarratuko nuke"



Enseñantzako abesbatza (1947)


Gaur egun gutxiago, baina sasoi batean oso ezagunak ziren Mariaren Lagundiko neskek osatutako abesbatzak. Eskolako egun seinalatuetan ezezik, inguruko herrietan antolatzen ziren hainbat ekitaldi eta abesbatza lehiaketetan izaten ziren.

Argazkian agertzen direnak, 1947. urtean Donostian antolatu zen Gabon kanten lehiaketan parte hartu zuten neskak dituzue. Domeketako uniforme dotorea jantzi eta han izan ziren urtean zehar entsaiatutako kantuak abesten. Hauek dira argazkiko izen eta abizenak:

Goian: Leonor Etxaniz (maistra), Maite Aranburu, María Luisa Osinalde, Anparo Astiazaran, Asuncion Gallastegi eta Ane Miren Zezaga.

Behean: Amaia Intxausti, Monserrat Masach, Maria Luisa Basterra, Maria Luisa Larrañaga, Mari Tere Leturia, Ana Olabarria, Gotzone Aranburu eta Nati Pujana (behean).

Argazkia: Ana Olabarria



ASUNCION UNAMUNO GOÑIren senitartekoek eskerrak eman nahi dizkiete doluminak adierazi zizkietenei eta hileta elizkizunetan izan ziren guztiei.
Bergaran, 1996ko martxoaren 29an.

ELKAR

ELEKTRAGINTZA



Mota guztietako instalazioak



76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA

VIDACRUCETA S.L.

i2

Santalaitz, 4
IT Vren ondoan
Tfnoa: 76 51 73

Udaberrian

koloretako bakeroak

prezio eta kalitatetik

ONENTAN!!

Levi's

ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK

LOGELETAN
espezializatutako merkatal zentrua

46 urteko esperientzia duten profesionalak sortu eta zuzendutakoa



Araba Etorbidea, 5
(ESKATU Pabiloia,
San Andres auzoa)
Tfnoa eta Faxe: 79 41 82
ARRASATE

Larunbat
arratsaldeetan
zabalik!!



Dena ETXEMOBELen. Batetik, kalitate eta diseinu handieneko logelak,
garantia osoarekin. Bestetik, logela merkeen artean merkeenak.

BENETAN HARRIGARRIA!!